



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



# FILOSOFIA, ZIENTZIA ETA BALIOAK MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Filosofia, Zientzia eta Balioak unibertsitate arteko masterrean Filosofiaen arlo nagusiak aztertuko dira: filosofia praktikoa –etika eta filosofia soziala eta politikoa-, epistemologia eta zientziaren historia eta filosofia. Gainera, ikerketa oinarritzkoenarekin batera, zientziari eta teknologiari buruzko gizarte-ikasketen ikerketa aplikatua ere egingo da masterrean (ESCT).

Masterraren helburu nagusia ondokoa da: ezagutzaren gizarteetan gertatzen ari diren aldaketa sozialak, axiologikoak, politikoak eta kulturalak ulertzeko eta horien analisi kritikoa egiteko metodoak, bitarteko kontzeptualak eta ikuspegi solidoak –filosofikoak, historikoak eta sozialak- eskaintzea.

Programa amaitu ostean ikasleak ezagutza, gaitasun eta ikuspegi jakin batzuk

eskuratuta izango ditu, eta horien bidez, Filosofiaen eta ESCTen esparruetan ulertze sistematikoa erakusteko eta, berak bakarrik edo talde bateko kide izanik, ikerketa akademikoa egiteko gai izango da; gizarte garaikideetan ezagutzaren sormen, transmisio eta hedapen prozesuei buruz diziplina anitzeko perspektiba behar duten lanpostuetan jardun ahal izango du; eta Filosofiaen gaineko doktorego-tesia prestatu ahal izango du.

UPV/EHuko Logika eta Zientziaren Filosofia Sailak eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailak antolatu dute programa hau, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoaren (UNAM) Zientziaren Filosofiari buruzko graduondoko programarekin batera.

---

## SARBIDEA

---

Unibertsitateko titulua, graduoko titulua edo titulua baliokidea; lizentzia, ingeniari-tza edo arkitektura.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Irakaskuntza eta ikerketa. Sarbidea Doktoradutzara. Kultura eragilea udaletan, erakunde publikoetan eta GKEetan. Zientziaren eta teknologiaren komunikazio-lanak fundazioetan, erakunde publikoetan eta erakunde pribatuetan. Politika publikoen, berrikuntzari lotutako proiektuen, kultura zientifikoaren programen eta abarren kudeaketa. Komunikabideetan: zientzia eta gizarte edo ikerketa atalen eta abarren arduraduna. Argitalpenen kudeaketa eta bildumen zuzendaritza.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

<b>Eskolak emateko lekua:</b>	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Donostia). Master amaierako tesia UPV/EHU edo UNAMen egin daiteke.
<b>Irakaskuntza mota:</b>	Eskolan bertakoa.
<b>Hizkuntza:</b>	Gaztelania (hautazko lanak euskaraz edo ingelesez).
<b>Gutxi gorabeherako prezioa:</b>	1.600-1.800 €.
<b>Egutegia:</b>	Irailetik ekainera, arratsaldez egunero.

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

<b>Nahitaezko Gaiak</b> 15 ECTS kreditu	<b>Hautazko Gaiak</b> 30 ECTS kreditu	<b>Proiektuak / Ikerketa-lanak</b> 15 ECTS kreditu	<b>Guztira</b> 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

**Nahitaezkoak:** 5 ECTS

- Ezagutza eta balioak.
- Zientziaren filosofia.
- Ikerketara sarrerarako lantegia.

**Hautazkoak:** 6 ECTS

- Gai etiko garaikideak.
- Hizkuntza eta kultura.
- Ezagutza, Kultura eta Gizartea.
- Filosofia, zientzia eta kultura.
- Zientziaren historia.
- Hizkuntza, gogoia eta argudiatzea.
- Biologiaren eta zientzia kognitiboen Filosofia.
- Fisika eta matematikaren filosofia.
- Zientzia eta teknologia ikastetara sarrera.
- Zientzia eta teknologia: Ulermen publikoa, perzeptzioa, arriskua.
- Zientzia eta teknologiaren politikak.
- Zientziaren eta teknologiaren ebaluazioa.

**Master amaierako lana** (15 ECTS)

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduraduna:** Jon Umerez

**Tel:** 943015537

**Posta elektronikoa:**

jon.umerez@ehu.eus

